


Apirilak 29a, Dantzaren Nazioarteko Eguna

Euskadin, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 15,7k dantza praktikatzeko du, *amateur* mailan. Ehuneko horrek bizkoiztu egiten du Euskadiko 15 urtetik gorako biztanleriari dagokiona (% 8,2).

Dantza, *amateur* mailan, praktikatzeko duten Euskadiko 15 eta 24 urte bitarteko gazteak eta 15 urtetik gorako biztanleak (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Kulturaren Euskal Behatokiaren 2018ko Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze kulturari buruzko inkestaren emaitzak oinarri hartuta

Gainera, gazteen % 13,0k dio dantza-ikastaroren bat egin duela edo egiten ari dela, bere ikasketa zentrotik kanpo (ikaslea izanez gero). 15 urtetik gorako biztanleen artean, araututako hezkuntza-eremutik kanpo dantzarekin lotutako formazioa jasotzen dutenen ehuneko txikiagoa da, % 7,8koa, hain zuzen ere.

Bestetik, hiru gaztetik batek (% 35,5) aurreko urtean dantza-ikuskizunen bat ikustera joan zela dio: % 10,4 lau ikuskizunetara edo gehiagotara joan zen eta % 25,1 lau ikuskizun baino gutxiagora; gainerako % 64,5 ez zen dantza-ikuskizun batera ere joan aurreko urtean.

15 urtetik gorako biztanleria osoan aurreko urtean dantza-ikuskizunen bat ikustera joan zirenen ehuneko gazteen artean jasotakoa baino txikixeagoa da (% 30,6). Horien artean % 9,7 lau ialdiz edo gehiagotan joan zen eta % 20,9 gutxiagotan.

Euskadiko 15 eta 24 urte bitarteko gazteen eta 15 urtetik gorako biztanleriaren banaketa, aurreko urtean dantza-ikuskizunetara joateko maiztasunaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Kulturaren Euskal Behatokiaren 2018ko Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze kulturari buruzko inkestaren emaitzak oinarri hartuta

Dantza-ikuskizunetara joateko maiztasuna nabarmen areagotu da hamar urtetan: 2008an gazteen % 11,3k adierazi zuen aurreko urtean dantza-ikuskizunen batera joan zela, 2018an, aldiz, ehuneko hori % 35,5era handitu da. 15 urtetik gorako biztanleria osoan ere, antzeko igoera gertatu da: 2008an % 9,3tik 2018ko % 30,6ra.

Datu horiek Gazteen Euskal Behatokiak aztertu ditu, Kulturaren Euskal Behatokiak 2019an argitaratu zuen [Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze kulturari buruzko inkestaren emaitzen txostena](#) oinarri hartuta. Txosten horretan agertzen diren datuak 2018ko iraila eta Abendua bitartean telefonoz egindako inkestaren bidez jaso ziren.